

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Aginaga Lazkano

*Arantza,
Nafarroa
(1932-2018)*

Aurkibidea

Biografia



Arantzan sortu zen,
Martxepen bordan. Bi
gurasoak Arantzakoak zituen.

Zintak

ARN-010

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-11-11
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

ARN-011

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-11-11
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

ARN-012

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-11-11
- **Iraupena:** 53 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

Pasarteak

1. Eskolako kontuak

- **Erref:** ARN-010/002
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:00:08. **Bukatu:** 00:03:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

6 urtetan egin zuen komunioa Juanek eta denbora horretan martxotik maiatza arte ibili zen eskolan dotrina ikasten. Gero neguan joaten ziren eskolara, hilabeteren bat. Neguan 100 bat haur egoten zen eskolan (Juanen adineko 22), maisu bakarrarekin. Maisuak ezin denei erakutsi eta herriko haurren bati esaten zion laguntzeko. Auzoetakoak herrikoen menean zeuden eskolan. Neskak beste eskola batean izaten ziren eta beste 100 bat izanen ziren.

2. Maisu - maistra

- **Erref:** ARN-010/003
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:03:01. **Bukatu:** 00:04:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Senar emazteak ziren. Maisuak maite izaten zuen ehizara joatea eta orduan maistra bidaltzen zuen mutikoengana eta neskekin jartzen zuen koinata. Maistrak beldurtu egiten zituen mutikoak.

3. Eskolara gutxi joaten ziren

- **Erref:** ARN-010/004
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:04:07. **Bukatu:** 00:05:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Urtean hilabete batez joaten ziren eskolara. Aitak nahi zuen haurrek ikas zezaten, baina amak ez zion garrantzirik ematen. Amarendako etxean lan egiten bazuten, aski zen. Haurrek ere ez zuten gogo handirik eskolarako. Etxeko lanak egiten ibiltzen ziren umeak. Juan 16 urterekin hasi zen lanean.

4. Zerran lanean

- **Erref:** ARN-010/005
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:05:42. **Bukatu:** 00:09:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

3 anai aritzen ziren zerran. 3 zerralari kuadrilla zeuden eta konpetentzian ibiltzen ziren, zeinek merkeago egin edo zeinek hobe. Materiala zegoen tokian bertan zerratzen zen, mendian. Gero mandoarekin jaitsi. Oholak 10 zentimetrokoak izaten ziren. Etxerako baziren 3 zentimetroko taulak izaten ziren. Ohola handietarik, mandoak 2 edo 3 jaitsi zitzakeen. Nola zerratzen zuten azaltzen du. Plataforma baten gainean zerratzen zuten, 3 lagunen artean.

5. Egurra mozteko kalkuloak

- **Erref:** ARN-010/007
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:09:34. **Bukatu:** 00:11:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Eskolan gutxi ibili eta kalkuloak egiteko orduan behartu ziren. Gauez hasi ziren eskolara joaten. Kubikatzen ikasi nahi zuten eta irakasleak esan zien horretarako lehenbizi numeroak egiten ikasi behar zituztela ongi. Aitarekin ibiliak ziren biderkatzen eta zatitzen eta bazekiten horretan. Egurrak nola neurtzen zituzten azaltzen du.

6. Soldaduska

- **Erref:** ARN-010/009
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:11:54. **Bukatu:** 00:16:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Soldado joan zen 3 hilabetez. Zertan zekiten galdetu zieten eta Juan-ek kalkukoal egiten zekiela esan. Ez zekien erderaz. Sargentoak herra hartu zion. Erderaz ongi egiten zuen Lesakar bat bazen eta harek azaltzen zien zer egin behar zen. Sargentoa ohartu zen ez zutela nahita egiten eta baretu zen pixka bat. Eskola gutxi eta erdararik ez eta gauza asko keinuengatik ulertzen zituzten. Erdaldunekin nola moldatzen ziren. "Exceso de cupo" tokatu zitzaion eta bakarrik 3 hilabete egon zen.

7. Soldaduskako arropak

- **Erref:** ARN-010/011
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:17:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Maniobretarako zamarra bat, kapela bat, bota pare bat eman zieten. Etxera joatean haiek entregatu behar zituzten bueltan. Euskara eta gaztelaren arteko kontuak.

8. Soldadutzan denbora gutxi egoteaz pena

- **Erref:** ARN-010/012
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:17:55. **Bukatu:** 00:22:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Gaztelera ikasteko aukera txikiagoa izan zuen. Mendiko lur eremu batzuekin tira-birak izan zituen Juanek eta gaztelaraz ez zekienez gaizki paratua atera zen. Gaztelera ikasteko aukera ona izanen zen soldaduska.

9. Gaztelaraz ez jakiteaz pena. Euskara-Gaztelera kontuak

- **Erref:** ARN-010/014
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:22:43. **Bukatu:** 00:24:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Juan da senideen artean gaztelera gutxien zekiena. Anaiak soldadu ibili ziren gehiago, Oiartzunen eta Artikutzan izan ziren eta han ere gaztelaraz egiten zuten... Anai baten semeak gaztelaraz egiten zion aitari, aitak euskaraz erantzun. Aitari iruditzen zitzaion semeak euskaraz egiten ziola.

10. Donezteben eta Beran erderaz

- **Erref:** ARN-010/015
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:24:09. **Bukatu:** 00:25:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Gutxi joaten ziren Doneztebe eta Berara. Donezteben jendeak euskaraz egiten zuen dezente. Gazteluko lehengusuek, denek zekiten erdaraz, Doneztebera joan baitziren eskolara. Goizueta, Oiz, Ituren eta Arantza izanen ziren herririk euskaldunenak. Igantziri Madrid txikito esaten zioten erdaraz ongi egiten zutelako haien artean.

11. Kontakizuna: Hilzorian eta Jesus esan nahi ez

- **Erref:** ARN-010/017
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:25:41. **Bukatu:** 00:27:04

Gaia(k):**Laburpena:**

Gizon bat bazen oso gaizki eta apaiza joan zen oliadura ematera. Oliadura eman eta azken sakramentua hartuta, "Jesus" esan behar zuela gaixoak. Eta gaixoak ezetz. Infernuan berotuko zela. Beste lagun batek esan zion apaizari esanaraziko ziola. Zakur batek 6 kume izan zituela bota eta besteak: "Jesus, Jesus, hori ere pasa al da?"

12. Etxalarko gizonak ederrak dira

- **Erref:** ARN-010/019
- **Iraupena:** 0:00:07. **Hasi:** 00:27:12. **Bukatu:** 00:27:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Etxalarko gizonak ederrak dira, zizarea bezain lodiak eta kakalardoa bezain zuriak.

13. Bost herriak ongi moldatzen ziren. Pikea auzoen artean

- **Erref:** ARN-010/021
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:27:24. **Bukatu:** 00:28:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Ongi moldatu izan dira Bortzirietako herriak. Izaten zituzten elkarrendako txisteak baina besterik ez. Auzoen artean bai izan da pike gehiago, burla egiten zioten elkarri.

14. Neskatan eta mutiletan

- **Erref:** ARN-010/022
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:28:05. **Bukatu:** 00:32:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Denak ibiltzen ziren kuadrillan. Neskak bezperetara joaten ziren San Jose

ermitara. Neskak auzokoekin ibiltzen ziren. Neskak bezperatik itzuli eta akordeoia hasten zen ordurako. Juanek ez zuen dantzarik egiten, ez baitzen hasi, lotsa ematen zion. Arantzan akordeonista asko ziren 4-5, eta txandaka ibiltzen ziren. Neskak hasten ziren dantzan eta gero mutilak biltzen zitzaizkien. Ilunezkilean mutilek neskak laguntzen zituzten etxera, denak ordurako erretiratzen baitziren. 2 auzoetako neskak elkarrekin ateratzen ziren, dendan arropaz aldatu eta ateratzeko prest! Faborez eskatzen zieten mutilek laguntzen ahal zituzten. Beste dendatik ateratzen ziren beste auzoetakoak, baten batek ezetz esan ezkerro. Auzo horretako mutilak ez ziren asko haserretzen, baina kanpotarra bazinen bai! Neskak kuadrilla handitan ibiltzen ziren, 30 bat lagun bai! Muxu ematea bekatu mortala zen.

15. Bertso bat: 3 neskatxa

- **Erref:** ARN-010/024
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:32:41. **Bukatu:** 00:33:31

Gaia(k):

Laburpena:

Hiru neskatxa zebiltzan kalean serio, mutilak neskatxari beti amorio, zirri egin diola batek omen dio, multa pagatu dugu hori dela medio”...

16. Apaizek bijilatzen zuten

- **Erref:** ARN-010/026
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:33:43. **Bukatu:** 00:35:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Apaizek bijilatzen zuten. Ilunezkilarako denek uzten zuten plaza eta bideetan ez zegoen horrenbesteko kontrolirik. Etxeetan, amek ere kontrolatzen zuten, agertu egiten ziren. Neska bat haurdun geratu ezkerro bekatu handia izaten zen. Behin neska bat haurdun geratu eta neska zahar bati galdetu zioten zer uste zuen: ojala gu ere hola ibili bagina!

17. Arantzan neskazahar aberats dezente. Ama solterak

- **Erref:** ARN-010/028
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:36:19. **Bukatu:** 00:38:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Arantzan neskazahar aberats geratu ziren. Ez zitzaien iruditzen pobre batekin ezkon zitezkeenik. Ama solterak ere baztertuak geratzen ziren betiko. Ama soltera bat ezkontzen bazen amabirjinari ez zioten ez lorerik ez argirik jartzen apaizak eta elizaren inguruko beste zenbaitzuek.

18. Amak berak umea bataiatu

- **Erref:** ARN-010/030
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:38:43. **Bukatu:** 00:39:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Amak berak bataiatzen zituen askotan aitarik gabeko haur jaio berriak. Ur bedeinkatua etxean eduki, eta harekin.

19. Musean aritzen zireneko kontuak

- **Erref:** ARN-010/032
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:42:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Bereiz ibiltzen ziren normalean, baina elkartu ere elkartzen ziren. Herrian elkartzen ziren, musean esaterako. Bokadillo bat edo halako zerbait jokatzeko zuten. Ordaintzeko garaian, bokadillotan edo sosetan, izaten ziren ika-mikak. Ardo-jokoan ere aritzen ziren.

20. Trena eta tranbia egin zireneko bertsoak

- **Erref:** ARN-010/034
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:43:22. **Bukatu:** 00:46:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gipuzkoara trena eta tranbia heldu zireneko bertsoak erreztatzen ditu Juanek, aitaren aitarekin ikasiak. Doinua ere kantatzen du.

21. Igeltsero lana Luzaiden. Harea errekatik

- **Erref:** ARN-010/036
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:46:54. **Bukatu:** 00:49:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Luzaiden lanean zirela, ibai ondotik hartzen zuten igeltsero lanerako harea, eta horretarako taula batzuk jarri zituzten lurrean. Gauez ez zituzten kentzen eta guardiek esan zieten gauez kentzeko.

22. Iturgin. Ura etxeetan jarri

- **Erref:** ARN-010/038
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:51:42. **Bukatu:** 00:54:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

1956 artean ez zen urik Arantzako etxeetan, 4etan baino ez. 36 bat etxeetan jarri zuten ura. Bazen herrian beste iturgin bat baina ezin etxe guztietara heldu eta Juani plomua estainatzen irakatsi zion. Orduan hasi zen iturgin. Beste iturginari erosten zion materiala, gero Lesakan.

23. Ura sartu zelarik ze aldaketa izan zen etxeetan

- **Erref:** ARN-010/039
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:54:59. **Bukatu:** 00:58:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Beste bizi bat heldu zen. Lehen behekaldeetik ekarri behar izaten zuten ura baldeekin. Ez zuten komunarik, behien gorotz artean egiten zituzten beharrak. Ura sartu eta berehala hasi ziren komunak egiten. Dutzak oraindik ere 10-15 urte beranduago egingen ziren seguraski. Egunero dutzatzea arraro egiten zitzairen. Udan, igandeetan arrantzan joaten ziren eta orduan bainatzen ziren.

24. Gorputzaren garbiketa

- **Erref:** ARN-010/041
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:58:33. **Bukatu:** 01:01:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Oinak balde zabaletan garbitzen zituzten, baina batek erabiltzen zuen baldean han denak. Gero ur hori zerriendako erabiltzen zen. Aurpegia goizetan garbitzen zuten baina ur gutxirekin. Emazteek ile luzeegirik ez zuten izaten. Luzea bazuten bilduta eramaten zuten. Emazteek tarteka garbitzen zuten ilea, xaboiarekin. Lixiba egiten zutelarik, sobratzen zen urarekin garbitzen zuten ilea ere. Baita oinak ere. Zenbait bertso botatzen ditu Juanek. "Mutiko gaixtoek zer dute merezi? Urean beratu eta lixiban egosi".

25. Txirritaren bertsoak ijitoei

- **Erref:** ARN-010/042
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:01:29. **Bukatu:** 01:02:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Txirritak ijitoei jarritako bertsoak errezitatzen ditu Juanek

26. Txirritaren bertsoak

- **Erref:** ARN-011/002
- **Iraupena:** 0:00:08. **Hasi:** 00:01:11. **Bukatu:** 00:01:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

"Txirritaren beste bertso batzuk errezitatzen ditu Juanek. "Mundu ontako bizi-modua Aste ontan Txirritak jarriyak""

27. Gerra ondoa. Goserik ez

- **Erref:** ARN-011/004
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:01:36. **Bukatu:** 00:06:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gerra ondoan ez zuten gose handirik pasa. Egiten zituzten gauzak aise saltzen zituzten. Hazten zituzten gauza asko ez zituzten jaten, saltzeko ziren: oilaskoa bestetan bakarrik jaten zuten, arrautzak ere gutxi... Baziren 4 bat trapitxero. Gauza batzuk garesti ziren: olioarengatik 16 duro pagatu izan zituzten, ez dendan, soldaduengandik baizik. Trukea egiten zuten militarrekin, olio a arrautzen truke. Olio gutxi gastatzen zuten beraz, normalean urdaiarekin frijitzen zuten. Zerriak hiltzen zituzten, gaztainak biltzen... Kafe gutxi izaten zen ere. Azukre beltza izaten zen,

28. Pasadizoa - "Dos de bragueta, docena completa"

- **Erref:** ARN-011/005
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:06:06. **Bukatu:** 00:06:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Arantzatik bazihoan bat Endarlatzan beheiti saskia eskuan. Han gelditu zuten zer ote zeraman jakiteko eta horrek esan: "Un zerri buru, dos de morcilla, diez de arraultze, dos de bragueta, docena completa"

29. Trapitxeroak

- **Erref:** ARN-011/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:06:41. **Bukatu:** 00:07:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Trapitxeroek arrautzak pasa zitzaketen Endarlatsatik, baina ez nahi adina. Gona azpian eramaten zituzten 6 dozena agian, eta saskian gutxi batzuk, erakusteko. Hura harrapatu zuten. Lesakan bazen esne-saltzaile bat eta hark arrautzak esne barruan sartuta pasatzen zituen. Hura ere harrapatu zuten.

30. Gaztak saltzen ziren. Zerriak ere bai

- **Erref:** ARN-011/009
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:07:56. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ez ziren orain bezalakoak, batzuk onak izaten ziren, baina besteak txarrak. Hala ere egiten zen gazta guztia saldu egiten zen. Urde amak Oiartzunen saltzen zituzten. Oiartzundik artoa ekarri eta zerriak eramaten zituzten. Lukainak ere saltzen zituzten. Zekorrek ere salerosten zituzten, batzuetan deklaratura eta besteetan ez, errekiatsen baitzituzten.

31. Rekisa

- **Erref:** ARN-011/010
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:11:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Zuek egiten zenituen gauzetatik estadoari entregatu behar zenion parte bat. Rekisakoak etorri gero ardi erituek eta halakoak ematen zizkieten. Ilarra ere ematen zieten. Ilar horietako batzuk mamorruak jaten zituzten eta horiek ere ematen zizkieten errekiakoei. Jendeak tranpa pixka bat egiten zuen, baina ez zen bijilantzia handirik izaten.

32. Erleak: erle motak

- **Erref:** ARN-011/012
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:11:22. **Bukatu:** 00:13:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Eultzetan bizi ziren, maiatza aldean hasten ziren betetzen. Badira erle klase ezberdinak. Batzuk poliziak dira eta horiek ausiki egiten dute. Zanganoak edo erle harrak, Santiagotarako agertzen hasten ziren. Abuztu bukaeran poliziek hegala mozten zizkieten erle alferrei eta erlauntzatik bidaltzen zituzten. Erleei buruzko bertso bat ere abesten du.

33. Erleak: erregina

- **Erref:** ARN-011/014
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:14:09. **Bukatu:** 00:16:56

Gaia(k):**Laburpena:**

Erreginak ez badu familia aski hil egiten dute eta beste bat jartzen bere lekuan. Erleek ezagutzen dute haien erregina zein den. Bere sendiarekin mugitzen da.

34. Erleak: eultzak

- **Erref:** ARN-011/016
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:17:01. **Bukatu:** 00:18:15

Gaia(k):

Laburpena:

Gaztaina baten enborraren azala zartatu eta gero aienekin betetzen joaten zen ura, inguruan. Erdialdean zabalxeago eta izkinetan estuxeago. Behi kaka ematen zitzaion barrutik eta eguzkitan idortzen uzten zen. Bigarren kapa bat ere ematen zitzaion, eta kanpotik batzuetan igeltsua. Erleak erakartzeko astamenda erabiltzen zen eultzeari usain ona emateko.

35. Erleak: ezitia

- **Erref:** ARN-011/018
- **Iraupena:** 0:05:09. **Hasi:** 00:18:45. **Bukatu:** 00:23:54

Gaia(k):**Laburpena:**

Erlea ateratzeko ez zuten erlea hiltzen, edo oso gutxitan. Berexka zaharrak kendu behar ziren, bestela gaitza etortzen baitzitzaion eultzeari (har mota bat). Urrian jasotzen zuten ezitia. Batzuk mendira joaten ziren erle bila, eta horiek bai sufrearekin hiltzen zituzten. Badira eultzean jo eta eskapatzen diren erleak, horiek ez dira bertakoak. Besteak ausiki egitera ateratzen dira.

36. Erle bila mendira

- **Erref:** ARN-011/019
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:23:54. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Erreka bazterrean edo iturri txikitan bizi dira gusturago erleak, eguzki aldean. Erlea ikusi eta erlauntza topatzen bazen, arbolaren gerrian gurutze bat egiten zen zuhaitza markatzeko. Hori errespetatu beharra zen.

37. Erleen umea tokiz aldatzeko

- **Erref:** ARN-011/021
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:27:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Erlauntzan jotzen zuten gogortua ote zegoen ikusteko. Erlauntza zapi batean hartu eta tokiz mugitzen zuten.

38. Erlea deitzeko, bertan Maria

- **Erref:** ARN-011/023
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:27:54. **Bukatu:** 00:29:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Erlea ez da mukuru joaten, denak joaten dira banaka. Erle bat ikusi eta "Bertan Maria" esan eta erregina geratzen bada, beste denak atzetik etorriko

dira ixtantean. Batzuetan erlauntzarekin harrapatzen ahal ziren errez, bestela makil baten laguntzaz sartzen ziren erlauntzean. Erregina erlauntzean bada, denak sartuko dira, baina kanpoan geratu bada, denak aterako dira berriz. Lekua bilatua bazuten lehendik ere martxa egiten dute, ez badute lekurik, geratu.

39. Erleek gidariak izaten dituzte

- **Erref:** ARN-011/025
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:30:23. **Bukatu:** 00:32:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

2-3 erle ibiltzen dira leku bila. Erreginak horiei segitzen die. Antzineko zaharrak lurra tiratzen zieten erleei gidariak hil ezker, besteak han geratzen baitziren. Erleei ere txistu egiten zitzairen erlauntzan sartzeko.

40. Erleak ausiki egin ezker

- **Erref:** ARN-011/026
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:32:04. **Bukatu:** 00:32:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Erleak ausiki egin ezker listua eta lurrarekin ore bat egin eta horrekin igurtzen zen azala. Ausiki aunitz izaten bazituen batek, ez ziren handitzen, gorputzak bere defentsak izaten zituen, baina alergiaren bat bazuen lagun horrek, oso txarra izaten zen.

41. Erleak. Sinesmenak

- **Erref:** ARN-011/027
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:32:44. **Bukatu:** 00:34:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Etxean norbait hiltzen zenean, erleengana joaten zen norbait eta argizaria egiteko eskatzen zitzairen. Erlauntzan 3 kox-kox jo eta argizaria egiteko eskatzen zieten. Bestetik, erleak ezin ziren saldu. Eztia eta argizaria saltzen ziren, baina erleak ez. Oparitan eman bai. Argizaria nolakoa izaten zen: gogorra eta beraxeagoa.

42. Eztia eskuz egiten zuten eztia. Mostilloa. Argizaria

- **Erref:** ARN-011/028
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:34:49. **Bukatu:** 00:36:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Berexkak hartu eta eskuz estutzen zituzten eztia ateratzeko. Hura harizko trapu baten gainean jarri eta handik ere estutzen zen, eztia garbitzeko. Geratzen zen berexka hondarrarekin mostilloa egiten zuten. Ogi irinarekin nahasi eta egosten zen. Mostilloa egiterakoan, argizaria gainaldean geratzen zen.

43. Gaztain baikuntza

- **Erref:** ARN-011/030
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:37:01. **Bukatu:** 00:39:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Gaztain denboran ez zen libre haziendak kanpoan, gaztaina artean ibiltzea. Denuntziatu egiten zuten jendea horregatik. Aziendaren jabea preso eraman eta multa pagatu behar izaten zuen. Auzoan errespetatu egiten ziren eta ez zuten iskanbilarik izan horregatik. San Migeletan izaten zen hori, uzta bukatu arte.

44. Gaztainedek martxo arte aguantatzen zuten

- **Erref:** ARN-011/031
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:39:17. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Gaztainedek martxo arte aguantatzen zuten, baina klase bat sotoan sartzen zen morkotxarekin eta maiatza hondarrera arte aguantatzen zuten horiek.. Bestela zainak ateratzen zitzaizkien eta ez ziren jateko. Mugitu behar izaten ziren, sotoaren hezetasunaren arabera ere zimeldu egiten zirelako. Apirilean buelta ematen zitzaien ikusteko nola zeuden. Maiatzera arte jaten zuten gaztaina.

45. Bertsoa - Arantzako ministro...

- **Erref:** ARN-011/033
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:41:12. **Bukatu:** 00:42:09

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Arantzako agintariei jarritako bertsoak.</p>

46. Bertsoa - Mina gorrik jarri diote izena...

- **Erref:** ARN-011/035
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:42:25. **Bukatu:** 00:43:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Igantzik harrobiari buruzko bertsoak, Iñarburu deituak jarritakoak.

47. Arruzpiko mairu-zuloa

- **Erref:** ARN-011/037
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:43:47. **Bukatu:** 00:45:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Arkupe handi bat dago arruzpin eta gero beste zulo bat. Han bizi omen ziren mairuak, sorginei deitzen zieten mairu. Arratseko 12etan batek ikusi omen zituen mairuak arropa garbitzen. Bertsoa botatzen du.

48. Lehenagoko neurriak

- **Erref:** ARN-011/039
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:46:10. **Bukatu:** 00:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Besoa: hatzetatik ukondorako neurria zen. 56 zentimetro. 7 oin, 182 zentimetro. Haziendak neurtzeko "cuerda" edo soka bat erabiltzen zen. Gaztainak erroboekin neurtzen ziren. Errobo-erdia eta gaitzurua ere erabiltzen ziren neurri gisa. Beste gauzak pisatzeko liberak 5 libera t'erdi, 2 kilo. Kiloa 12 ontza. Pisu erromatarrak erabiltzen zituzten.

49. Denda-parrokia

- **Erref:** ARN-011/041
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:50:17. **Bukatu:** 00:52:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Jendeak bere puskak saltzera eta eroztera eramaten zuten tokiari (dendari) parrokia deitzen zioten. Beste dendakoa ateratzen zitzaien bidera esateko ia zertarako beste dendara joaten zen. Konpetentzia handia zuten 4 denden artean. Denden izenak aipatzen ditu.

50. Hamarrenak eta primiziak

- **Erref:** ARN-011/043
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:53:41. **Bukatu:** 00:54:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Etxe bakoitzeko 100 errobo arto biltzen baziren, 10 errobo elizari eman behar zitzaizkion. Dotrinak esaten zuen.elizgizonei bizitzeko laguntza eman behar zitzaieiela.

51. Eliza barreneko antolaketa

- **Erref:** ARN-011/045

- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:54:20. **Bukatu:** 00:56:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Etxe bakoitzak bere eserlekuak zituen, bere hilerria. Argizaria pizten bazen urte osoan ordaindu behar zen eta gastu dezente egiten zen. Lehenago elizan lurperatzen zuten jendea. Aulkietan esertzen ziren eta han jartzen ziren belauniko ere emazteak.

52. Misioak.Pasadizoa

- **Erref:** ARN-011/047
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:57:53. **Bukatu:** 00:58:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Kanpoko apaizak misioetara etorri eta sermoia ematen ari eta emazte bat negarrez. Hurrengo egunean berdin. Apaiz bizarduna emaztearengana joan eta ia zergatik egiten ote zuen negar. Emazteak erantzun zion, ahuntza bat galdu zuela zuela gutxi eta bere antza hartzen zola eta horregatik.

53. Astoa eta apaiza, pasadizoa

- **Erref:** ARN-011/049
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:59:00. **Bukatu:** 01:00:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lehenago jendea astoarekin joaten zen eta astoek soka hozkatu eta eskapatu egiten ziren batzuetan. Behin gizon bat apaizarekin gurutzatu eta sermoia entzutera joateko esan zion. Gizonak ezetz, astoa eskapatzen zitzaiola. Apaiza esan zion berak lotuko zuela ongi astoa eta jaungoikoak zainduko zuela. Sermoian ari zen apaiza eta esan zuen, hementxe gure artea da jaungoikoa, eta gizonak orduan. Ederki dago nere astoa orduan!!!! Eta joan zen.

54. Gizonak eta emakumeak elizan

- **Erref:** ARN-011/051
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:00:32. **Bukatu:** 01:01:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gizonak ezker aldean kokatzen ziren eta emakumeak eskuinaldetik. Komunioa hartzeko-eta ere berdin, bi lerrotan joaten ziren.

55. Txisteak - Sakramentuak, Joxemari 6. pisutik erori, doble ikusten zuen mozkorra

- **Erref:** ARN-011/053

- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:01:28. **Bukatu:** 01:03:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Mutiko bati konfirmatzeko garaia heldu eta apaizak galdetu zion zenbat sakramentu ote ziren. Lehenago zazpi ziren orain bakarra ere ez, mutikoak erantzun. Aitona oso gaizki zegoen eta esan zuten apaizak azken sakramentua eman ziola eta beraz, jada ez da bakarra ere geratzen! Bestea: Joxemari 6. pisu batetik erori eta apaizak esan zuen zeruen zegoela. Hori duk hori errebotea! Mozkortua etxera joan, eta doble ikusten zuen, etxeetara deika ia emazteren batek senarra faltan zuen...

56. Aita santuaren txistea

- **Erref:** ARN-012/001
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:00:01. **Bukatu:** 00:00:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Aita santuak gidatzeko gogoia izan eta berak gidatuko zuela esan zion txoferrari. Izugarritzko auto kola egin zuen atzean eta guardiek gelditu. Ikusi aita-santua zela, belauniko jarri eta paso eman dio. Beste guardiak galdetu: nor zen ba? - Jaungoikoa bera behar zuen, aitasantua zuen txofer!!!!

57. Apaiza eta neskatoa. Txistea

- **Erref:** ARN-012/003
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:00:59. **Bukatu:** 00:02:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Apaizaren opor garaia zen eta auzolanean ekarri behar zioten egurra. Zerbait eman beharko diegu langile hauei. Neskatoak esan zion gazta bazuela eta ogitartekoak eginen zizkiela. Beti badago xelebreren bat eta urrezko burruntzaliak bazituen apaizak eta egun hartan bat faltatu zitzaion. Sukaldean egondako langileak ebatsi ote zuen eta neskatoak esan zion xelebrea bai, baina mutil hura ez zela lapurra. Galdetuko ziola. Galdetu zion eta oraindik ez duzu bilatu? Beraz, oraindik ez duzu zure ohean lorik egin!!!!

58. Txistea. Apaiza ehiztari

- **Erref:** ARN-012/005
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:02:38. **Bukatu:** 00:04:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Eperrak ehizatzen lagun batekin joan eta afaltzen gonbidatzen du gizonak apaiza. Han emaztearekin gertatu zena.

59. Apaiza eta urdaiazpikoak. Txistea

- **Erref:** ARN-012/006
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:04:41. **Bukatu:** 00:07:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Apaizaren urdaiazpikoei buruzko txistea. Bazko eta Erramutarako zirela eta nola ebatsi zizkioten bi xelebrek neskatoaren zozokeriaz baliatuta.

60. Txistea. Artzaina eta neskatoa

- **Erref:** ARN-012/008
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:07:46. **Bukatu:** 00:09:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Neskatiko bat gustora egoten zen artzain batekin baina ez zekien xuxen zergatik. Gurasoek ez zuten nahi neska artzain harekin izaterik, pobreago zelakoan. Neskak hori ezan zion artzainari. Gelako leihoa irekita uzteko eskatu zion artzainak eta gero gerokoak...

61. Arto kontuak

- **Erref:** ARN-012/010
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:11:05. **Bukatu:** 00:14:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Artoa urria hasieran ipurditik moztzen zen eta gero denak bildu. Bihurrekin lotzen ziren gero. Horri mozorroa deitzen zioten. Mazal-astoa ere deitzen zitzaion horri, eta behiei ematen zitzaaien. Artoaren parte guztiak probesteko erabiltzen zen hura. Txirrixta lehenago egiten zen. Arto hostoa behiendako zen jateko, lastairak egiteko ere bai. Koltxoi moduko bat zen artoaren xurikinarekin betetzen zena.

62. Hilabeteak euskaraz eta urtaroak

- **Erref:** ARN-012/011
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:14:24. **Bukatu:** 00:15:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ilbeltza, Otsaila, Martxoa, Apirila, Maiatza, Garagarrila, Uzta, Abuztua, Buruila, Azaroa eta Abendua. Primabera, uda, udazkena eta negua.

63. Asteko egunak

- **Erref:** ARN-012/013
- **Iraupena:** 0:00:07. **Hasi:** 00:15:28. **Bukatu:** 00:15:35

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Asteko eguna bortzirietako euskeraz

64. Kardatxa sua pizteko

- **Erref:** ARN-012/015
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:15:42. **Bukatu:** 00:18:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Pagoari adarra usteltzen bazaio kardatxa haste zaio ateratzen. Hura egosi, sikatu eta sua egiteko oso ona zen. Egosi gabe ere sua egiten zuen. Brasakin pizten zen hura, baina edozein txisparekin su hartzen zuen hurak. Bazkotan su berria etxera ekartzeko erabiltzen zen kardatxa hura. Su zaharra kanpora ateratzen zen, leihotik.

65. Gauetan sua tapatzen zen

- **Erref:** ARN-012/017
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:18:21. **Bukatu:** 00:18:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Brasen gainean enbor bat jartzen zen eta gero brasa haiek hautsekin tapatzen ziren. Su hori ez zen gauean itzaliko.

66. Txondorra pizterakoan zer egiten zen. Txondor egitea

- **Erref:** ARN-012/018
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:18:52. **Bukatu:** 00:23:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Txondorra egiterakoan eta sua barrura sartzerakoan, pala bakoitzari gurutzea egiten zioten. Juan aritu izan da txondorra egiten. Plaza zelaitu, egurrak kokatzen ziren, goian arbaztak, eta egur gero eta txikiagoak. Gainetik orbela eta gero lurra. Goitik sua botatzen zen eta gero egur xehea bota behar izaten zen noizean behin eta sua zirikatu. Inguruan hainbat zulo izaten zituen txondorrek suak arnas zezan. Laino gisako kea atera behar zuen txondorrek, bestela ez zen ongi. Juanek gaztainarekin egiten zituen txondorrek, baina pagoa eta haritza ere erabiltzen ziren. Pagoa zen egurrik onena. Gaztainak zartakoak egiten ditu. Arotzek maite dute gaztaina.

67. Txirritaren hainbat istorio eta bertso

- **Erref:** ARN-012/020
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:23:49. **Bukatu:** 00:27:22

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Txirritak zituen zenbait ateraldi kotatzen ditu Juanek. Zer moduz Txirrita? Ez dakit zergatik egiten didazu bixita! Holako hainbat kontatzen ditu, baita bertso osoak ere.

68. Kantuak

- **Erref:** ARN-012/022
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:27:39. **Bukatu:** 00:29:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Txirritaren bertsoez gain bestelako kantuak kantatzen zituzten. Errezitatzen ditu batzuk: "Ez da munduan gizonik...", "Ikusten duzu goizean...", Aitatzirekin ikasi zituen kantu aunitz zerri hiltze garaian. .

69. Bertsoak. Neska haurduna

- **Erref:** ARN-012/024
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:30:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Haurdun geratu zen neskatxa bati buruzko bertsoak . Arantzan gertatuak behar direla dio.

70. Bertsoak. Neskazarrenak

- **Erref:** ARN-012/026
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:30:08. **Bukatu:** 00:31:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Neskazarren bertso batzuk

71. Xenpelarren bertsoak

- **Erref:** ARN-012/028
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:32:06. **Bukatu:** 00:33:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Xenpelarrenak izan behar diren bertso batzuk

72. Bertsoak: aizak mutil mainontzi

- **Erref:** ARN-012/030
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:33:42. **Bukatu:** 00:34:36

Gaia(k):

Laburpena:

Xenpelarren bertso famatuak

73. Xenpelarren bertso gehiago

- **Erref:** ARN-012/032
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:34:47. **Bukatu:** 00:36:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lezoko herriari buruz Xenpelarrek botatako bertso batzuk. Beste ezberdin batzuk ere.

74. Apaizaren bertsoak eta gehiago

- **Erref:** ARN-012/034
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:36:46. **Bukatu:** 00:39:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Bertso sorta handi bat errezitatzen du Juan-ek, apaiz bati buruzkoak eta gehiago.

75. Baserrietan tabikeak jartzen ziren oholekin

- **Erref:** ARN-012/036
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:39:48. **Bukatu:** 00:41:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gelan goitik behera langa batzuk jarri eta urritz makilekin egiten ziren hesiak. Gero gainetik kisua eta lurrarekin egiten zen morteroa. 2 aldeetatik eman, eta tabikea egina zegoen. Halako pareta asko egoten zen. Goroldio eta kisuarekin ere egiten ziren, Zubietan adibidez.

76. Txirritaren bertsoak 79 urtetan

- **Erref:** ARN-012/038
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:41:17. **Bukatu:** 00:42:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

79 urte zituenean zeuzkan minez kexatzen zen Txirrita bertso hauetan.

77. Txirritak bertsoak frantsesei

- **Erref:** ARN-012/039
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:42:05. **Bukatu:** 00:43:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Harrobian lanean ari ziren frantses alfer batzuei Txirritak jarritako bertsoak

78. Elizako erranak

- **Erref:** ARN-012/041
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:44:41. **Bukatu:** 00:47:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Elizako zenbait erran luze esaten ditu Juanek. Latinez ere erreztatzen du Juanek.

79. Santa Barbararen historia

- **Erref:** ARN-012/043
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:47:19. **Bukatu:** 00:49:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Suaren defendatzailea zen Santa Barbara era bere historiari buruzko kontu hau. Ekaitza zenean Santa Barbarari errezatzen zitzaion.

80. Santa Genovevaren historia eta bertsoak

- **Erref:** ARN-012/044
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:49:35. **Bukatu:** 00:52:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Santa Genoveva santuaren historia kontatzen du Juanek. Berari buruzko bertsoak ere botatzen ditu

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com